

GOBERNU BATZARRA

2014. 04. 25

Alkatea:

Ibai Iriarte San Vicente

Zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria

**Iñaki Xabier Irazabalbeitia
Fernandez.**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso.

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko apirilaren hogeita bostean, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-San Filippo Inauteriko xexenetako sarrerak. Donazioa.

3.- Iurramendi egoitza: Martxoko kuota.

4.- Fronton Kafetegiri diru laguntza.

5.-“Tolosako Elkarte Gastronomikoen eragina herriko dinamikan” proiektuan aurreikusitako lanak kontratatzea..

6.- Hondakinen tasan diru laguntza: autokonpostajea edo auzo konposta.

7.-Tolosako Udalerrian gazteen intereseko gaiak garatzeko bertako elkarteei dirulaguntzak emateko oinarriak.

8.- Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren 5. ziurtagiria (061/14 faktura).

9.- 130 Led luminaria erosteko baldintza plegua.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko apirilaren 11n egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-San Filippo. Inauteriko xexenetako sarrerak. Donazioa.

“San Filippo” deritzon gaixotasuna duen Tolosako bati laguntzearen, Inauterietan zexenetako sarreraren prezioari euro bat erantsi zitzaion.

Udal Gobernuak, bestalde, erabaki zuen sarreraren salmentatik bildutakoari beste hainbeste jarriko zuela dirulaguntza modura.

Sarreraren salmentatik 15.322 euro lortu ziren; orduan, Udalak jarri beharrekoa beste 15.322 euro dira.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- San Filippo Fundazioari 30.644€-ko laguntza ematea, lehen aipatutako arrazoietan oinarrituta.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Festa zerbitzuari eta San Filippo Fundazioari.

3.- lurreamendi egoitza: Martxoko kuota.

lurreamendi egoitzak martxoko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi egoitzari ordaintzea martxoko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, 33.223,2876 €-koa, honela banatuta:

1. Autonomoen kostua: 1.213,96 €
2. Elbarrien defizita: 32.009,32 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

4.- Fronton Kafetegiri diru laguntza.

Fronton Kafetegian eguneroko menua adierazten duen arbela kentzeko asmoa dago eta, bere ordez, ordenagailu bidez txukunago eta garbiago pantailan adieraztea menua, euskaraz eta gazteleraz, tarte handiagoa euskarari emanez. Pantailak 2.700 euroko kostua izango du. Pantailean argitaratu daitezke udal eskaintza kulturalak.

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Kostuaren %30, hau da, 810 €, diru laguntza modura ematea, udal eskaintza kulturalak ere bertan azaltzen badira. Horretarako hitzartu beharko da eskaintza kulturalen publizitatea nola eta noiz arte izango den.

BIGARRENA.- Adieraztea dirulaguntza jasotzeko ondoren aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko direla:

- . Egin dena orriska batean.
- . Faktura edo fotokopia konpultsatua.
- . Ogasuna eta Gizarte Segurantzaren zorrak ez dituela adieraztea.

HIRUGARRENA.- Erabakiaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta Fronton Kafetegiarri.

5.- “Tolosako Elkarte Gastronomikoen eragina herriko dinamikan” proiektuan aurreikusitako lanak kontratatzea.

Gobernu Batzarrak, 2014ko otsailaren 21ean egindako bileran, honako kontratazio espedientea onartu zuen: “Tolosako Elkarte Gastronomikoen eragina herriko dinamikan” proiektuari dagokiona.

Gonbidapenak egin ondoren, lizitatzailer hau aurkeztu da: Farapi, S.L.

Berdintasun Teknikariak egindako txostenaren arabera, aurkeztutako dokumentazioa egokia da eta Farapi, S.L., honen alde kontratazioa egitea proposatu du.

Horretan oinarrituz, 2014ko martxoaren 24an, errekirementua egin zitzaion eta emandako epe barruan aurkeztu ditu eskatutako dokumentuak.

Beraz, hau dena kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Adjudikatzea Farapi, S.L., enpresari “Tolosako Elkarte Gastronomikoen eragina herriko dinamikan” deritzon proiektuan aurreikusitako lanak.

- Prezioa: 43.277,60 euro, BEZa barne.

BIGARRENA.- Akordio hau jakinaraztea Farapi, S.L., enpresari eta dei egitea kontratua sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Kontratuaren iragarkia kontratazio profileen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabakiaren berri kontuhartzaitzari ematea.

6.- Hondakinen tasan diru laguntza: autokonpostajea edo auzo konposta.

2012ko abenduan, Tolosako udaleko 2013 urteko aurrekontuak onartu ziren. Bertan, 0200.480.01.131.50 partidan, laguntza fiskalei dagokienean, 15.000 eurotako gastua aurreikusi zen.

Tolosaldeko Mankomunitateko eta Ingurumeneko txostenetan oinarrituz, 2013ko irailean, autokonposta edo auzo konposta egiten zuten sujetu pasiboetako hondakinen tasan diru laguntza ematea onartu zen Gobernu Batzorduan. Baina I.B.R.-k ikastaroa Leaburun burutu zuenez, eta, akats baten ondorioz, ez zen Tolosako zerrendan agertu. Hortaz, ez zitzaion dirulaguntzarik eman.

Horren aurrean, Tolosaldeko Mankomunitateak egindako txostenean oinarrituz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- I.B.R.-ri, autokonposta egiten duenez, 2013 urteko hondakin bilketa tasaren %30eko diru laguntza ematea , guztira: 27,66 euro.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ingurugiro sailari, Tolosako Mankomunitateari , Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

7.-Tolosako Udalerrian gazteen intereseko gaiak garatzeko bertako elkarteei diru laguntzak emateko oinarriak.

2014 urteko dirulaguntza oinarriak aurkeztu dira, Tolosako Udalerrian gazteen intereseko gaiak garatzeko bertako elkarteei diru laguntzak emateko oinarriak deritzona. Diru laguntza honen kopurua gehienez 8.700 €-koa izango da.

Bestalde, Tolosako Udalerriko elkartu gabeko gazteei laguntza emateko oinarriak ere aurkeztu dira, eta kopurua 2.500 €-koa da.

Aipatutakoa kontuan izanik, eta Kultura batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Gazteriako diru laguntzak emateko oinarriak (elkarte eta elkarte gabeko gazte taldeei zuzendua), eta aurrekontu partida: 11.200€.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gazteria zerbitzuari eta Kontuhartzaitza departamentuari.

8.-Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren 5. ziuertagiria (061/14 faktura).

Bi mila hamahiruko urriaren 4an egindako bilkuran Udal Gobernu Batzarrak Lurgoien, S.A., enpresari adjudikatu zion Euskal Herria 1-B eraikinean

zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratua, 1.565.052,72 (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila hamalauko apirilaren 11n, Lurgoien, S.A., enpresak 5. ziurtagiria aurkeztu du, 224.449,72 €-koa.

Ziurtagiri hau aztertuta, eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziurtagiriari, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren bosgarren ziurtagiria (fak zkia: 061/14, Lurgoien, S.A., enpresarena), 224.449,72 €-koa (BEZ barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Lurgoien, S.A., enpresari eta Kontuhartzaitzari.

9.- 130 Led luminaria erosteko baldintza plegua.

Ikusirik Klausula Administratibo Partikularren Agiria, 130 LED luminaria erosteko Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Visto el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares para la contratación de suministro de 130 luminarias LED, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.-Onartzea Kontratazioa espediente, publizataterik gabeko prozeduara negoziatuaren bidez, 130 LED luminaria erosteko, Lizitazio-tipoa hau da: 59.910 €, gehi Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ).

PRIMERO.- Aprobar el expediente para la contratación, por el procedimiento negociado sin publicidad, del suministro de 130 luminarias LED, cuyo tipo de licitación se determina en 59.910 euros, más el correspondiente al Impuesto sobre el Valor Añadido

(IVA)

BIGARRENA.- Gastua 2014ko aurrekotuaren gain aurreikus-tea.

HIRUGARRENA.- Onartzea Baldintza Administratibo Partikularren plegua, prozedura negoziatuaren bidez 130 LED luminaria erosteko.

LAUGARRENA.- Adjudikazio prozedurarai ekitea eta, horreterako, dagozkion gonbidapenak igortzea.

SEGUNDO.- Disponer del gasto con cargo al presupuesto de 2014.

TERCERO.- Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares para la contratación de suministro de 130 luminarias LED por procedimiento negociado sin publicidad.

CUARTO.- Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación y, a tal efecto, cursar las invitaciones que correspondan.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.

ALKATEA

IDAZKARIA